

# KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## Gonak gorroto zituen neska



Xabier Etxaniz Erle



### Marimutilla naiz

ANA JAKA

Ilustratzailea: Patxi Gallego.  
Haurrentzat. 32 orrialde.  
Elkar, 2016

“Eta zer?” bildumako lan guztiak egoera baten inguruko liburuak dira; eta, normalean, izenburuan bertan argi geratzen da zeri buruzko lana izango den. Oraingo honetan ere, irakurleak berehala ikus dezake mutilen jokabidea edo gustuak dituen neska baten istorioa dela. Edo zuzenago esateko jokabide femeninoa, gizarteak emakumeei egokitu ohi zaizkien jokabideak, gustuko ez dituen neska baten istorioa.

Beno, kontua da Ioneri mutilen gauzak gustatzen zaizkiola, mutil itxura duela eta mutila ematen duela.

Ipuinaren hasierak, ordea, *bullyingaren* inguruko kontakizuna ematen du: “Gaur marimutilla deitu didate jolas-orduan. Beno, Aitor izan da horrela deitu didana. Besteek ez, besteek entzun egin dute, eta batzuek barre egin dute eta beste batzuk isilik geratu dira, nik zer erantzungo”. Eta abiapuntu horretatik, mari-mutil esate horren ondorioz sorturiko haserretik datorkigu kontakizun hau.

Ionek aitonarekin hitz egingo du, bera-rekin duen konplizitatea funtsezkoa da istorioaren nondik norakoa ulertzeko, are gehiago izaba Naiararen ezkontza dela eta, etxekoekin dituen eztabaidak bideratzeko.

“Aitonarekin hitz egitea gustatzen zait, horrelako galderak egiten dituelako. Nik pentsatzea nahi duela esaten du, nik neuk nire pentsamenduak sortu eta erabakiak hartzea, pertsona helduek bezala. Eta erantzuten saiatu naiz”. Horra hor Ione eta aitona-ren arteko harremanaren oinarria; aitona gautzen zergatia bilatzen du, eta hori ulertuta beti izango da errazago arazoaren irtenbidea aurkitzea. Gainera, Ioneri mari-mutila deitu diotela jakitean aitona amonaren hainbat kontu

azalduko dizkio, nola aritzen zen bertsotan, emakumea izanda nola zen hori bitxia eta arraroa gizonezkoen mundu batean eta hari ere mari-mutila deitzen ziotela horregatik: “Harro egon behar duzu zuk ere, nahi duzuna egiten duzulako, neska ala mutila zaren axolarik izan gabe.”

Ioneren inguruko ipuin honek bi espazio ditu, lehena, ikusi dugun bezala, eskola; bertan azaltzen da arazoa eta horren ondorioz planteatzen zaigu Ioneri ez zaizkiola gonak gustatzen, mutilen moduan janzten dela, mutila ematen duela... eta bigarren espazioa etxea dugu. Istorioa modu naturalean, ia kontura gabe, batetik bestera igarotzen da. Eta hasiera batean *bullying* edo eskola kontua ematen duena, azkenean familia barrukoa bilakatzen da. Izan ere, aurreiritziak eta inertziak sendoak dira eta gogorra da haiekin amaitzea, haiei aurre egitea.

Ana Jakaren ipuin hau “Eta zer?” bildumako estilokoa dugu; Patxi Gallegoren irudi osagarri eta aberasgarriak, komikien estiloak eta istorioaren ildo jarraitzeko egokiak dira. Kontakizun landuak gogoeta bultzatzen du baina panfleto izatera iritsi gabe. Amaieran hasierara itzultzen gaitu kontakizunak; baina amaierako egoera eta hasierakoa guztiz ezberdinak dira. ■



Ana Jaka  
andoaindar idazlea.